

## **2024ko martxoaren 8rako Adierazpena**

### **Berdintasunaren aldeko belaunaldiarteko transmisioa**

#### **Feminismoaren genealogia**

Emakumeen ahalduntze-prozesuak genealogia feminista ulertzea eskatzen du, tradizio teoriko, politiko eta filosofiko feminista baten oinordekotzat hartzeko. Prozesu horrek berekin dakar proposamen feministen garapen historikoa aitortzea eta emakumeen historia eta haien ekarpenak berreraikitzea, bai emakume batzuen erresistentzia partikularretatik, bai mugimendu feministen erresistentzia artikulatutik.

Hala ere, sistema patriarkalak ikusezin bihurtu eta ukatu egin ditu emakumeen ekoizpen teorikoa eta aktibismo politiko eta soziala, emakumeen erresistentziaren eta komunitateei eta gizarteari egindako ekarpenen ebidentziak isilaraziz eta ezabatuz. Hainbat jatorri eta tradizio kultural, arrazializatuak, lesbianak, dibertsitate funtzionala duten emakumeak eta adineko emakumeek egindako ekarpenak sistematikoki ezabatu dira.

Ildo horretan, berehalako gure aurrekarien ezagutza eta aintzatespena oso mugatuta daude, egitura sozial edadista eta sexista dela-eta. Adineko emakumeak ikusezin mantentzen dira, errealitatearen irakurketa kritikoa eta erresistentzia indibidual eta kolektiborako gaitasuna aitortu gabe. Sistematikoki estereotipatuak eta diskriminatuak direlako eta sozialki garrantzirik gabekoak direla ulertzen delako.

Gainera, adineko emakumeen kasuan, ikusezintasun horrek ezkutatu egiten ditu adineko emakumeen zaugarritasun handiagoko egoerak, hala nola prekarietatea eta pobretzea, nahi ez den bakardadea, osasun-arazoak eta indarkeria matxista egoerak.

Martxoaren 8an, emakumeen nazioarteko eguna dela eta, bidezkoa da emakumeen memoria kolektiboa berreraikitzea, iragana-oraina-etorkizuna fluxua aktibatuko duena. Euskal erakundeek genealogia feminista ikusarazteko eta emakumeekiko historiaren ahazturak erreparatzeko eskura dituzten estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar dituzte, belaunaldien arteko transmisioa bermatuz, emakumeak beren historiarekin lotuko dituen, ahalduntzeko nortasun kolektibo bat eraikitzeko.

Udalek, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak diren aldetik, aukera eta erantzukizuna dute historia hori tokiko eremuan berreskuratzeko eta emakumeek eta borroka feministek udalerrien bizitzari eman dioten balioa aitortzeko. Beraz, Hondarribiko Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Emakumeen **memoria historikoa aitortu eta berreskuratuko** duten proiektuak garatzea, genealogia sortzeko, hurbileko erreferenteetatik hasi eta tokiko bizitzan eragina izan duten talde feministetarako. Eudeli eskaera egiten diogu udalek egiten dituzten lan guztiak bildu eta eskura jartzea bere web gunean.
- Une historiko bakoitzean, tradizio eta ingurune kultural guztietan, sistemarekiko erresistentzia eta erantzuna artikulatu duten **mugimendu feministak aintzatesten laguntzea**
- **Ezagutzak eta esperientziak trukatzeko belaunaldien arteko topaketa- eta elkarrizketa-guneak** babestea, ahalduz feministarako eta adin eta baldintza desberdinetako emakumeen aliantzarako gune gisa
- Adineko emakumeen, emakume etorkinen, paperik gabekoen **ikusgaitasuna sustatzea** eta edadismoari aurre egitea, gizartean emakumeen zahartzaroari buruz nagusi den irudia eraldatuz, adinean eta estereotipoetan oinarrituta.
- Adineko emakumeek esparru publikoan dituzten **esperientzietan eta harreman- eta partaidetza-moduetan arreta berezia** jarriko duten proiektuak bultzatzea, haien aniztasun osoan.
- Errenta baxuenak dituzten adineko emakumeei, bereziki alargunei, **ahalduntze ekonomikoa** bermatuko dieten diru-sarreraren eta pentsioen eskaera babestea Eusko Jaurlaritzak konpentsazio funts bat sortu dezala eskatuz
- Adineko emakumeentzat, bereziki alarguentzat, dauden **laguntza eta prestazio ekonomikoak ezagutaraztea.**
- Udal-eskumeneko **laguntza- eta zaintza-zerbitzu publikoak indartzea** beren herrietan, adineko emakumei autonomia eta aktibismoa mantentzea ahalbidetzeko.
- Adineko emakumeen aurkako **indarkeria matxistaren** eragina eta hura gauzatzeko moduak ikertzea eta horietan sakontzea, emakume horien errealitatera eta beharretara egokitutako erantzunak artikulatzeko.
- Berdintasun teknikaria kontratatu eta Berdintasun saila sortuko du. Horrekin **Berdinsaren sartzeko eskaera** egingo du. Berdinsarearen bidez, udalerrriak emakumeen tokiko memoria berreskuratzeke abian jartzen ari diren ekimenak ezagutarazko eta ikusarazteko.